

Nor da nor - Defendatzaileak

Helburua: Munduko giza eskubideen hainbat defendatzailearen borroka istorioak ezagutuz, eskubide kolektiboak defendatzean munduko hainbat tokitan ditugun erronkez eta garrantziaz jabetzea.

Iraupena: Bederen ordu bat

Adina: >12

Partehartzaile kopurua: >2

Materialak:

- Talde bakoitzeko taula bat, honako hauekin:
 - [Defendatzaileen argazkiak eta izenak](#) (18 taula bakoitzen, taula bakoitzean ordena desberdinean jartzea gomendatzen da)
**Zure taula egin behar baduzu, [tutorial hau](#) gomendatzen dizugu.*
 - [Deskribapen-fitxak](#) (36 ale)
 - [Argazki solteak](#) (18 ale)
 - [Defendatzaileen biografiak](#) (18 ale)
- Papera eta boligrafoak

Jardueraren garapena:

Pertsona guztien eskubideak defendatzeko, desberdintasunen eta bidegabekeriaren aurka borrokatzen duten pertsonak eta erakundeak ezagutuko ditugu. Adibideak ikusiko ditugu, zer eta nola egiten ari diren, nola egiten dioten aurre sistemari eta nola tratatzen dituen honek... Mundu osoko giza eskubideen defendatzaile batzuen biografiak ezagutuko ditugu, haien borrokek inspiratu gaitzaten eta gure egoerarekin alderatu ditzagun. Horretarako, Nor da Nor joko klasikora jolastuko gara.

Joko honetan ohikoa da pertsona batek beste batekin jokatzea, bakoitzak bere taula duela, baina modalitate hau konplexuagoa denez, gutxienez bikoteka jokatzeko gomendatzen da, hau da, bikote bat bestearen aurrean, bakoitza bere taularekin; eta gehienez 4 pertsona beste 4ren aurrean.

Taldeak egin ondoren, bakoitzari taula bat emango zaio defendatzaileen argazki eta izenekin, eta bakoitzari deskribapen-fitxa bat emango zaio. Ikusiko duzuen bezala, fitxetan defendatzailearen izena agertzen da, eta azpian bere erakundea, baita bere kontinentea, defendatzen dituen eskubideak, egin dituen ekintzak, lorpenak eta giza eskubideak defendatzeagatik jasan dituen kriminalizazioak ere.

Ondoren, argazki solteen multzotik, azpialde bakoitzak defendatzaile bat aukeratuko du ausaz, eta dagokion fitxa banatuko zaio. Bi horiek taula gainean jarriko dira, eta aukeratu duen azpialdeak bakarrik ikusi ahal izango ditu.

Arauak:

- Helburua beste taldeak ze defendatzaile aukeratu duen asmatzea da, eta alderantziz, bai/ez erantzunen galderak eginez, tartekatuta -lehenengo talde bat eta gero bestea-, asmatzen den ala ez kontuan hartu gabe.

Adibidez: Aukeratu duzuen pertsonak, herrien eskubideak defendatzen ditu? + Bai. (Fitxan izenburu hori ez duten argazkiak jaisten dira) - Afrikakoa da? + Ez. (Afrikakoak direnak jaisten dira).

- Galderak egiteko, letra lodiz dauden ezaugarriak begiratu behar ditugu, hitzez hitz galdetuz edo erantzunez, hau da, fitxan esaten dena zehatz-mehatz.

- Kategoria berari buruz ezin da bi aldiz baino gehiago galdetu.

- Ezin da zuzenean elkartearen izena galdetu.

- Erantzun ondoren, eta galdetu aurretik, denbora emango diogu beste taldeari fitxak baztertzeko eta antolatzeko.

- Erantzunaren arabera, defendatzaile batzuk baztertuko ditugu haien argazkia jaitsez eta zuzenak altxatuta utziz, baita haien deskribapen-fitxak baztertuz ere.

- Aukeratutako defendatzailea X ote den galdetuko dugu zuzenean, soilik hori altxatuta geratzen zaigunean. Hau da, bi defendatzaile bakarrik geratzen zaizkigunean eta bat baztertu ondoren, hurrengo txandara arte itxarongo dugu, aukeratutako defendatzailea hori ote den galdetzeko. Hau da, galdera bakarra txanda bakoitzeko.

- Aukeratutako defendatzailea X den galdetu eta asmatzen denean, jokoa irabazten da. Bi taldeek irabazi arte jokatzen da

Gomendioak:

- Deskribapen-fitxa guztiak taularen aurrean jartzea gomendatzen da, begiratu batean guztiak irakur daitezen.

- Taldeko pertsona bakoitzak funtzio bat bete dezake: bat argazkiak igo eta jaisteaz arduratzen da, beste bat deskribapen-fitxak berrikusi eta baztertzeaz, beste bat galdetzeaz...

- Galdera egitean, paper batean idatz dezakezue, okertuz gero errepasatu ahal izateko.

- Erronda bat baino gehiago egin daiteke, defendatzaile ezberdinekin prozesua errepikatuz, baina kontuan izan asmatzen den defendatzaile bakoitzeko bere historia landuko dela. Gutxienez bi txanda egitea gomendatzen dugu.

Has dadila joko!:

Taulak, fitxak eta argazkiak banatu ondoren, denbora ematen zaie fitxak gainetik irakurri eta ulertzen ez dutena galdetzeko.

Taldeak prest daudenean, gazteena daukanak beste taldeari galdetuko dio lehenik (bozeramaile bat aukera daiteke, edo txanda bakoitzean taldeko pertsona batek galde dezala).

Hausnarketa:

Talde guztiek amaitzen dutenean (gutxienez defendatzaile bat asmatzen), talde bakoitzari asmatu duen defendatzailearen biografia emango zaio, eta talde txikian eztabaidatuko dute (papera eta boligrafoa emango zaie). –Egokiena da talde bakoitzeko gutxienez bi defendatzaile egotea, eduki gehiago izan dezaten eztabaidatzeko eta alderatzeko. Batekin jolasten hasi badira eta amaitzeko denborarik eman ez badie ere eman dakieke—. Papelegrafo batean galdera batzuk jarriko ditugu, eztabaida eta hausnarketa eragiteko.

- ♦ Zerbaitek arreta deitu digu? Zer gertatzen zaio defendatzaileari guri gertatzen ez zaiguna? Zergatik uste dugu gertatzen dela hori?
- ♦ Diskriminazio edo pribilegio posiziotik borrokatzen du? Nola eraldatzen du sistema / egiturak?
- ♦ ¿Zer dugu amankomunean? Nola gara gu defendatzaileak?
- ♦ Zertan inspiratzen gaitu defendatzaile honek? Guk egiten ez dugun zer egiten du bere erakundeak? Antzeko zerbait jar genezake martxan?

Ondoren, talde handian bateratze-lana egingo dugu, galdera hauek eginez:

- ♦ Zer iruditu zaizkizue istorio hauek? Laburtu aipatu dituzuen ideia nagusiak.
- ♦ Zer alde komun dituzte istorioek? Eta desberdintasunak?
- ♦ Zuen ustez, gure eskubideen alde borrokatzeko garrantzitsua da erakunde baten barruan egotea edo antolatuta egotea?
- ♦ Eta gu, nola gara edo nola izan gaitezke defendatzaileak?

Hausnarketa laguntzeko...

AIETI-ren "[Defendatzaileak: eraldatzen duten emakumeak](#)" erakusketa ikustea gomendatzen dugu.